



**BEIZAMAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

**2010-03-09ko EZOHIKO UDALBATZA**

Beizaman, bi mila eta hamargarren urteko martxoaren bderatzian, arratsaldeko 17:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, Igone Arruti Olazabal andrea eta Begoña Garmendia Vazquez andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Itziar Arkonada Lizarraga andreak.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

**LEHENENGO GAIA**  
**AURREKO BILERETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2009/06/26; 2009/07/29; 2009/09/14; 2009/09/21; 2009/10/02; 2009/10/16; 2009/11/25; 2009/11/30; 2009/12/22; 2010/01/18; 2010/02/09 eta 2010/02/24 saioetako akten zirriborroak ikusita, aho batez erabaki du udalbatzak hauek onartzea.

**BIGARRENGO GAIA**  
**ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

- 2010-01-12ko 01/2010 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 404,03.- €.
- 2010-01-15eko 02/2010 Dekretua: J.A.ri eskatzea Estrata Etxeko estolderia sistema nola egingo den adierazten duen dokumentazioa ekartzea.
- 2010-01-25eko 03/2010 Dekretua: 2009ko bigarren seihilekoari dagozkion urari buruzko tasen errolda jedaurrean jartzea.
- 2010-01-25eko 04/2010 Dekretua: 2009ko bigarren seihilekoari dagozkion zaborrari buruzko tasen errolda jedaurrean jartzea.
- 2010-01-25eko 05/2010 Dekretua: JMMAk eskatutako lehen erabilpeneko baimena ematea.
- 2010-01-25eko 06/2010 Dekretua: EEZParen zuzendaritza probintzialak egindako dirulaguntza deialdian, ludoteka zerbitzua proiektua aurkeztea.



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- 2010-01-29ko 07/2010 Dekretua: Larrano Basolanari likidazioa erreklamatzeari buruzko errekla-  
matzea.
- 2010-02-08ko 08/2010 Dekretua: Udaleko zigiluak berritzeko baimena ematea Tolosako Kopibat enpresari.
- 2010-02-12ko 09/2010 Dekretua: Excavaciones Otalastei SLri lehen ziurtagiriaren ordainketa egitea. Guztira 24.940,00.-€.
- 2010-02-12ko 10/2010 Dekretua: MSA eta GIMri likidazioa erreklamatzeari buruzko errekla-  
matzea.
- 2010-02-16ko 11/2010 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 774,00.- €.
- 2010-02-16ko 12/2010 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 158,29.- €.
- 2010-02-19ko 13/2010 Dekretua: 35.776.463-D udal langileari, martxoaren 3an medikura joateko baimena ematea.
- 2010-02-26ko 14/2010 Dekretua: Udal kudeaketan sortutako gastuak onartzea.
- 2010-02-26ko 15/2010 Dekretua: Udal kudeaketan sortutako gastuak onartzea.
- 2010-02-26ko 16/2010 Dekretua: Udal kudeaketan sortutako gastuak onartzea.
- 2010-02-26ko 17/2010 Dekretua: 2010 urteari dagokion trakzio mekanikozko ibilgailuei buruzko tasen errolda hilabeteko epeaz jendaurrean jartzea.
- 2010-02-26ko 18/2010 Dekretua: Aitor Oñatek egindako eskaera onartu eta aterpetzea erabiltzeko baimena ematea.
- 2010-02-26ko 19/2010 Dekretua: Epai-mahai kalifikatzaileak egindako proposamena onartzea eta Aitor Egiguren Arrue Eginkizun Anitzeko Langile bezala kontratatzea.
- 2010-02-24ko 20/2010 Dekretua: 2.010eko urtarrilaren 1ko BIZTANLE ERROLDAREN ZUZENKETA ETA ALDAKETAK onartzea, Beizamako Udalerriak data horretan 185 biztanle zituela adieraziz.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

**HIRUGARRENGO GAIA**  
**ONARTZEA, BADAGOKIO, BEIZAMAKO UDALEKO 2010 URTERAKO LAN**  
**ESKAINZTA PUBLIKOA EGITEA.**

Ikusirik, Beizamako Udaleko Osoko Bilkurak 2009 urteko Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda onartuak dituela. Honetan oinarrituz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

**Lehena.-** 2010 urterako Lan Eskaintza Publikoa onartzea, ondoren zehazten dena.



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

A 1 TALDEA, FUNTZIONARIO INTERINOA  
(834/2003 Errege Dekretuaren arabera).

Plazaren izena: Idazkari – kontuhartzailea

Plaza Kop.: 1.

Taldea 6/89 Leg. 43.art.: E

Egoera: H

Jardunaldia: %50.

**Bigarrena.-** Guztiei honen berri emateko asmoz, aditzera ematea dagozkion iragarkiak argitaratuz, Euskal Funtzio Publikoko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 24 artikulua eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen bidez onarturiko Udal Erregimen alorrean indarrean dauden Legebide Bateratutako Idazkiko 128.1 artikuluan xedatutakoa betez.

**LAUGARRENGO GAIA**

**ONARTZEA, BADAGOKIO, IDAZKARI-KONTUHARTZAILE LANPOSTUA  
BETETZEKO OPOSAKETA-LEHIAKETA DEIALDIA EGITEA.**

Ikusirik, Albizturko eta Beizamako Udalek hirugarren mailako idazkaritza dagokion udal elkarte osotzen dutela.

Ikusirik, estatu mailako gaitasundun izangaiek bete beharreko lanpostua dela baina une honetan hutsik dagoela.

Kontuan hartuz lanpostua betetzea beharrezkoa eta premiazkoa dela aipatutako udalen ohiko kudeaketarako.

Ikusirik, lanpostuaren deialdia 2010 urterako lan eskaintza publikoaren barne dagoela.

Aurreko guztia kontuan hartuz, Udaltzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

**Lehena.-** Udal honetako 2010 urterako Lan Eskaintza Publikoan jasoa dagoen idazkari-kontuhartzailearen lanpostua behin-behineko izaeraz betetzeko oposaketa-lehiaketa deitzea.

**Bigarrena.-** Deialdia arautuko duten oinarriak onartzea. (Erabaki honi erantsita doaz).

**Hirugarrena.-** Lanpostua betetzen den artean, Ines Arizagari, Beizamako Udaleko administrariari gaitasuna ematea fede publikoa eman eta gestio ekonomikoarekin lotura duten dokumentu eta eginbideak sinatzeko.

**Laugarrena.-** Gaitasun horren kalteordainetan, Udalhitzeko 15. mailari dagokion osagarria ordaintzea.



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## BOSGARREN GAIA

### 2008KO EKITALDIARI DAGOKION LIKIDAZIOA EGITEA.

Azken orduan kontabilitatea eramaten duen sistema informatizatuan sortu diren akats telematikoak direla eta, aho-batez gaia hurrengo osoko bilkuran aztertzeo uztea erabakitzen da.

## SEIGARREN GAIA

### ONARTZEA, BADAGOKIO, BEIZAMAKO "OSTATU ZAHARRA" TABERNAREN USTIAPEN ESKUBIDEAREN BEHIN BETIKO ESLEIPENA EGITEA.

Ikusirik, Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, besteak beste, herri honetako Ostatu Zaharra Tabernaren (eta –aukeran-, honi dagokion etxebizitza eta udal aterpetxea) ustiatzeko emakida administratiboaren erregimenean kontratazio-espeditentea onartu eta hura esleitzeko lizitazio-jardunbideari hasiera ematea erabaki zuela.

Ikusirik, Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko otsailaren 9an egindako bilkuran erabaki zuela, besteak beste, Idoia Urtuzaga Otaegiri eta Janire Ugartemendia Urtuzagari esleitzea Beizamako "ostatu zaharra" taberna-jatetxearen ustiapen eskubiderako kontratu berezia, behin behineko izaeraz, beraiek aurkeztutako proposamenean oinarrituz.

Ikusirik, gainontzeko dokumentazioa ekarri dutela eta behin betiko bermea eratua izan dela.

Aurreko guztia kontuan hartuz eta Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007ko Legean xedatutakoaren arabera, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

**Lehena.-** Beizamako "ostatu zaharra" taberna-jatetxearen ustiapen eskubidea Idoia Urtuzaga Otaegiri eta Janire Ugartemendia Urtuzagari esleitzea, behin betiko izaeraz.

**Bigarrena.-** Alkatea eskuordetzea dagokion kontratua eta beharrezkoak diren izapideak aurrera eramateko sinatu beharko diren dokumentuak sinatzeko.

**Hirugarrena.-** Esleipendunari dagozkion iragarki gastuak ordainaraztea.

Aztertzeo beste gairik ez dagoenez, 18:00etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.